

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/4/120

Izenburua: GORPUTZ HEZKUNTZAKO ETA KIROLETAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Datak: 1967-1980

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 3 instalazio unitate

Sortzailea: GORPUTZ HEZKUNTZAKO ETA KIROLETAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Erakundearen historia:

1941eko otsailaren 22ko Dekretuak FETen eta JONSen Kirol Ordezkaritza Nazionala sortu zuen, eta ordura arteko erakundeak, Espainiako Batzorde Olimpikoa, Kirol Kontseilu Nazionala eta NOBren Espainiako Ordezkaritza barneratu zituen. Eginkizun hauek zituen, besteak beste: jarduera fisikoa egiteko eta pixkanaka garatzeko arauak ematea eta horretan esku hartzea, eta edozein kirol adierazpenetako ikuskizun publikoak kontrolatzea.

Denborak aitzina egin ahala, eginkizun gehiago hartu zituen bere gain kirola eta gorputz hezkuntza sustatzeko eta zuzentzeko. Hori dela eta, 1956ko ekainaren 12ko Dekretuak izena aldatu eta Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Ordezkaritza Nazionala deitu zion.

1958an, ordezkari horren organo laguntzaile gisa, Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Probintzia Batzordeak sortu ziren.

Mugimenduaren Idazkaritza Nagusiko organoak antolatzeko eta garatzeko arauak aldarrikatzen dituen abuztuaren 21eko 2485/1970 Dekretuaren bidez, organo horien probintzia ordezkariak sortu ziren; haien artean zegoen Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Ordezkaritza Nazionala. Ardura hauek ematen zitzaizkien, beren lurralde eskumenen esparruan: kirol federazio, erakunde eta klubak funtzionamendua kudeatzea, laguntzak ematea, estatistikak egitea, kirola sustatzea, gorputz hezkuntzako planak eta programak proposatzea, etab.

1974ko ekainaren 21eko Aginduak Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Probintzia Ordezkaritzen eginkizunak, eskumenak eta antolamendua arautu zituen.

Franco hil eta Administrazioa berrantolatu ondotik, Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetza sortu zen (apirilaren 1eko 596/1977 Errege Dekretua, apirilaren 1eko 23/1977 Errege Lege Dekretua garatzen duena eta Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetza sortzen duena), Gobernuak Lehendakariaren mende, Estatuko Administrazio Zentralaren organo gisa. Hari zegokion Gobernuaren politika prestatzea, zuzentzea eta betearaztea, arlo hauetan: familia erakundearen, gazteriaren, emakumeen egoeraren, gorputz hezkuntzaren eta kirol praktikaren babesa eta tutoretza.

Maiatzaren 20ko 119/1977 Errege Dekretuak Familia, Gazteria eta Kirol Idazkariordetzaren egitura organikoa ezarri zuen, eta probintzia bakoitzean Familia, Gazteria eta Kirol Ordezkaritza bat sortu zuen, eskumenpeko lurralde eremuan kirol politikak garatzeko eta abiarazteko.

1986ko urtarrilaren 1ean, kirol arloko zerbitzuen transferentziak gauzatu ziren, ordura arte Estatuko Administrazioak garatzen baitzituen. Transferentziak urtarrilaren 24ko 335/1986 Errege Dekretuan —Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko kulturaren, kirolaren, gizarte laguntzaren eta sustapen soziokulturalaren arloetan— ezarrita zeuden. Hauek ziren:

Funts horretatik, hau bakarrik gorde da: kirol sari eta trofeoei buruzko dokumentazioa eta Probintzia Ordezkaritza horren korrespondentzia.

(Halaber, ikusi fitxa hau: 116. Erakunde Sindikalaren Probintzia Ordezkaritza)

Funtsaren antolamendua:

120.01 ADMINISTRAZIOA

120.01.01 Korrespondentzia

120.02 KIROLAREN SUSTAPENA

120.02.01 Kirol sari eta trofeoak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.